

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa Garapeneko Departamentuak Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluarekin hitzarmena sinatu du

Nafarroako Gobernuak 15. Urteurreneko Sustapen Plana eta produktuak ziurtatzeko prozesuaren digitalizazioa diruz lagunduko ditu

Viernes, 27 de mayo de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak lankidetzeta-hitzarmena sinatu du

[Nafarroako Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluarekin \(CPAEN-NNPEK\)](#). Hori dela bide, Nafarroako Gobernuak aurrean 70.000 euro emango ditu Kontseiluaren jarduerak diruz laguntzeko.



Sanzberro kontseilaria eta Carlos Bienzobas, CPAENeko lehendakaria.

Hitzarmena Jesús María Echeverría Azcona Landa Garapeneko zuzendari nagusiak eta Carlos Bienzobas Aznar Nafarroako Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren Kontseiluaren ordezkariak sinatu dute, Begoña Sanzberro Iturriria Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria aurrean zela.

Hitzarmen honen bidez diruz lagunduko diren Kontseiluko jarduerak bi taldetan biltzen dira: 1) 15. Urteurreneko Sustapen Plana (40.000 euro), ekitaldi nagusi moduan 7. Aste Ekologikoa duena; eta 2) produktu ekologikoen kontrol- eta ziurtatze-prozesua on line digitalizatzea (30.000 euro).

Landa Garapeneko Departamentuaren ustez, beharrezkoa da nekazaritza ekologikoaren zigilua duten nekazaritzako elikagaien sustapen-neurriak indartzea. Horrez gain, Departamentuko erantzukizunen artean, EE 834/2007 eta 889/2008 Araudietan ezarritako produktu ekologikoak kontrolatzeko sistema aplikatzen dela bermatu behar da, ekoizpen ekologikoaren sistemen gaineko ezagutza eta aplikazioa hedatu behar dira eta produktu ekologikoen eragileen gaineko kontrol-arabidearen inguruan ebatzi behar da.

Ildo horretatik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren arabera, beharrezkoa da Kontseiluaren egokitze-prozesua abian jartzea, ekoizpen-prozesuen gardentasuna eta

kontsumitzaileen konfiantza bermatzeko.